



OINAK PUNTUAREN BUKAERAN DOAZ



Aukeratu ditzagun kopla bakoitzerako oin egokiak azpiko zerrendatik eta idatzi ditzagun hutsuneetan, puntuaren bukaeran.



**Xan
Alkhat**

GURE INGURUMENA

-Aita zendako dira
itsasoak **zikin?**

-Betetzen baititugu
guk _____ !

Oinak: hondarkinekin, graziarekin.

-Aita zendako dira
gasa ta **petrola?**

-Batzuentzat baitira
aire ta _____

Oinak: axola, odola.

-Aita zendako dira
zentral **nuklearrak?**

-Leku handia baitu
gaur _____

Oinak: estralurtarrak, argi indarrak.

-Gure esku da beraz
zerbait **egitea!**

-Guziz arrazoi duzu
alaba _____ !

Oinak: maitea, zortea.

-Aita zendako dira
zuhaitz ainitz **mozten?**

-Gure mundua baitu
paperak _____

Oinak: erosten, egosten.

-Gure ingurumena
behar dugu **zaindu!**

-Ezin gaitzke egon
ja gehiago _____

Oinak: usaindu, zain gu.

-Aita zendako dira
abereak **hiltzen?**

-Ez baita ikasi nahi
haiekin _____

Oinak: zerbitzen, bizitzen.

-Has gaiten beraz, aita
gu biak **lanean...**

-Bizitzak jarrai dezan

Oinak: eginkizunean, etorkizunean.



Doinua:

Ikusi nuanean I

**Kopla edo
lauko txikia**